

KURTZO BARRIAREN HASIERAN

1

Kurtsoaren hasiera,
guztiontzat da aukera;
urteak joan eta etorri,
nahitaez goaz aurrera;
hirurogeita hamar urte ta,
ezin amaitu karrera.

2

Urteak jakuz pilatu,
alperrik disimulatu.
Eksistitzea ez da nahikoa,
bide hobe bat bilatu;
lagun, bizitza zeurea dozu
eta zeu espabilatu.

3

Bizitza ez da jolasa,
ez egin denpora pasa.
Hirurogeita bost urtez asko
hiltzen dira euren kasa;
larogeita hamar urtez lur emon,
hau da galera demasa!

4

Hau holan dala jakinez,
jarrai daigun joko finez.
Soldatapeko lanak itzita
aurrera beti ekinez;
Bizian Gorak maitez dinotsu:
“Ondo bizi on eginez”.

5

Gorputzez nago baldarra,
bihotzez bada sugarra.
Entzun egizu Bizian Gorak
egiten deusun dearra:
“Aurrera egin nahi ez dauana
hori da bakarrik zaharra”.

6

Kristinau sinismenean,
Jesusen jarraipenean.
Jubilatua, konbidapen hau
zeuretzat da zuzenean:
“Bizian Gorak deitzen deutsu gaur
Jainkoaren izenean”.

A. Martzel

